

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Lehenik, udaletxearekin jarriko gara harremanetan arropa lortzeko. Izan ere, Tolosa herrian zehar arropa botatzeko kontenedoreak daude. Horregatik, hasiera batean dendan nahiko arropa edukitzeko, udaletxearen ekarpena baliagarria litzateke.



Bestetik, arestian esan bezala, hilabatearen amaieran, sare sozialen bidez eskatutako bezeroei beraien produktuak bidaliko dizkiegu eta horretarako, banaketarako enpresa batekin jarri gara harremanetan: *Correos*.



Tolosako bezeroei beraien eskeraren banaketa, guk geuk egingo dugu bizikleta erabiiz. Horrela, ez dugu gure planeta kutsatuko.

Tolosatik kanpoko bezeroen eskaerak aurrera eramateko, correos erabiliko dugu. Izan ere, gure inguruan zoritxarrez ez dago banketarako enpresa jasangarririk. Hala ere, etorkizunean egongo baitz, enpresaz aldatuko ginateke. Hots, ahalik eta jasangarriena izatea nahiko genuke, nahiz eta egun ez izan posible.